

dauden hutsuneak eta batez ere, hezkuntz sistemaren erreformak planteatzen digun apostua zehar lerroen tratamendua aurrea eramateko.

Esparru honetan kokatzen da ikasturte honetan garatzen ari garen lehen aipatu dudan Ingurugiro-Hezierari buruzko Graduondoa.

Hildo honetatik, ikastaroaren diseinua egiterakoan, maila eta arlo diferenteetako irakasleekin osatu genuen talde-aholkularia, eta datozen *idea nagusiek* artikulatu dute ikastaroaren programa.

- Ingurugiro-balore berriak. Hau da, gizakiok, nahiz giza-banako, nahiz kulturalki antolaturiko talde bezala, gure inguruarekiko erlazioa eta berari egindako eraginak etika berri batetatik ikustea.
- Ingurugiro-problematikaren irispide globala. Ikuskera sistemiko eta interaktiboa.
- Garapen sostengarria aukera gisara.
- Hezkuntz perspektiba konplexuak aspektu komunikakor eta partizipatiboetan.
- Ingurugiro-Hezieraren arloko ekintza profesionalerako baliabide eta estrategia didaktikoak.
- Zehar lerroen integrazioa

Ikastaroaren helburuak datozenak dira:

- Prestakuntza lortu ingurugiro eta Ingurugiro-Hezierari dagokionez.
- Ikastetxeko Proiektu Hezitzaile eta Kurrikularretan Ingurugiro-Heziera integratzeko aukerabideak antzeman.
- Ingurugiro-Hezierarako tresna, baliabide eta tekniken erabileran ohitu.
- Ingurugiro-Hezierarekin bat datozen ikaspen-eredu eta ebaluaketarako eraikuntza indibidual eta kolektiboa sustatu teorikoki zein praktikoki.
- Gogoeta sustatu gizakiek ekosistemetan duten funtzioari buruz eta harreman mota berriak bultzatu sistema sozio-naturaletan.

Kurtsorearen egitaraua datozen ataletaz osatzen da.

O Moduloa: *Graduondoaren aurkezpena eta hasiera ematea*

II Multzoa: *Ingurugiro-hezieraren oinarri kurrikularretan sakontzea*

III Multzoa: *ingurugiro-hezieraren praktika, arazo gisara*

IV Multzoa: *interesgune baten disziplinarretako tratamendua. Ingurugiro-Heziera hirigunean: Hiria uraren bideari jarraitzea.*

V Multzoa: *Ingurugiro-hezierari buruzko programa baten diseinu eta aplikazioa hatera jartze eta ebaluaketa saioa.*

BIBLIOGRAFIA

AKADEMI ANTOLAKUNTZARAKO eta IRAKASLEGORAKO EREKTORDEA, 1991, 92,93. "E.H.Uko 1991-93, 92-94 eta 93-95 Biurteetako Doktorego-Programak". EHUko Argitarapen Zerbitzua Bilbo.

AKADEMI ANTOLAKUNTZARAKO eta IRAKASLEGORAKO EREKTORDEA, 1991, 92, 93. "E.H.Uko 1991-92, 92-93 eta 93-94 ikasturteetako Graduondoko Berezko Tituluen eskaintza". EHUko Argitarapen Zerbitzua: Bilbo.

CEIDA ETA HAGINA, 1992, "Ingurugiro Heziketaren II Ihardunaldiak, Ondorioak" 1991eko urriak. Bilbo.

EHU, 1993, "XII. Uda Ikastaroak" Informazio liburuxka. Donostia.

E.H.U. eta GASTEIZKO UDALA, 1990, 92, 93 "90-91, 92-93 eta 93-94 ikasturteetako Unibertsitate-Hedakuntza Iharduera eta Ikastaroak". Informazio-Liburuxka. Gasteiz.

HEZI, HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA eta EHU, 1990, 91, 92. "1990-91, 91-92 eta 92-93 ikasturteko Gaurkotze zientifiko eta didaktikorako Plangintza".

IRAKASLEGO UNIBERTSITATE HEDAKUNTZARAKO ERREKTORADUTZA eta HEZKUNTZA ZIENTZIEN INSTITUTA. 1991. "Ingreso y Planes de Estudio 1991-1992 EHUko Argitarapen Zerbitzua Bilbo.

XVII, XVIII, XX eta XXI. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA, 1989,90, 92,93. Informazio-Liburuxka, Iruñea.

EUSKAL IKASKUNTZA HEZKUNTZA SAREAN INGURUGIRO HEZIKETAREN MAHAI INGURUA

M^a ASUN FERNANDEZ

Ingurugiro heziketaren zabalketarako gomendioak

Ingurugiro Heziketa modu egokian hedatzeko, Instituzioen koordinazioa lortzea, baliabideen erabileraz erabakiak hartzen dituztenen formakuntza bultzatzea eta informazioaren zabalpena ziurtatzea ezin bestekoak dira, horrela bakarrik gauzatu daitezkelako Ingurugiroaren aldeko apostua Hezkuntza Sistemari.

SARRERA

Ingurugiro Heziketaren integrazioa Hezkuntza sisteman, nolakoa izan daiteken, ikusi baino lehen, komeni da Ingurugiro Heziketaren ezaugarri batetaz ohartzea; Ingurugiro Heziketaren izaerak berak gainditzen duela, hain zuzen, hezkuntza sistemaren muga, Ingurugiro Heziketa jende guztiari zuzendu behar zaiolako, Hezkuntza formalean eta ez-formalean hedatu behar delako eta faktore fisiko, sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak integratu behar dituelako.

Beraz ezaugarri hauek kontutan harturik CEIDA ikastegiak zer funtzio betetzen dituzten eta zer funtzio bete beharko lituzketen etorkizunean, azaltzen saiatuko naiz.

CEIDA helburuak eta garatze lerroak

CEIDA Centro de educación e investigación didáctica ambiental hitzen akronimoa da eta euskerazko itzulpena korapilotsua gertatzen delako edo, izen bakar horrekin geratu da hizkuntza bietan.

1990an, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailaren akordio baten ondorioz sortu zen lehen CEIDA, Bilbon, Ingurugiro Heziketaren integrazioa eta dinamizazioa Hezkuntza sisteman garatzeko asmoz.

Gaur egun beste bi zentro gehiago daude, Legazpin eta Basaurin eta guztira zazpi irakasle, zazpirak Hezkuntzakoak eta zerbitzu komisioan.

Aipatutako helburua garatzeko jarraitu ditugun bide batzuk, labor-labor azalduko dut ondoren:

Informazioa batez ere hiruilabeteroko boletinen bidez.

Koordinazioa: bi mailatan; irakaslegoaren koordinazioa eta gizartearen diharduten talde, elkarte, instituzio eta ekipamenduen koordinazioa, beti ere erizpideak bateratzeko eta dauden baliabideak ahal den bideegokienean erabiltzeko asmoz.

Formakuntza: zentro berdineko irakaslegoari zuzendutakoa eta alderdi praktikoari gehiago lotuta.

Dokumentazio zentroa: liburu, bideo, eskolaesperienciak eta materialen bilketaz gain, mailegu zerbitzu baten bidez irakaslegoari zabalduz.

Zehar lerroak eta CEIDaren lan proposamenak

Gauregun, Hizkuntza Erreformaren barruan, Ingurugiro Heziketaren integratzearako eredubatu hartu da: *zehar lerroen* eredu.

Eredu hau, Ingurugiro Heziketaren printzipio, metodo eta helburuekin gustuz bat dator. Bizitza kalitatea eta ingurunearen hobekuntza ez dira disziplina edo arlo baten landu beharrekoko gaiak, irakaskuntza estiloan, bizitza estiloan, baliabideen erabileran eta espazioen antolaketan oinarritutako ikas esperientziak baizik.

Eredu honek, baita ere, beste zehar lerroekin ulertzera garamatza, eta batera gizarte arazoak ulertzeko pentsamendu orokor bat eraikitzen, bizidunen eta ingurunearen arteko erlazioetan etika berria garatzen eta komunitatearen parte hartze aktiboaren bidez, arazo konponketan eta ingurunearen hobekuntzan ahalegintzen garamatza.

Heziketa globalaren perspektiba kontuan izanik eta helburuen eta bitartekoen koherentzia ahalbideratzeko asmoz,

CEIDatik proposatzen ditugun garatze lerroak hauek lirakete:

1. Edukin curricularrak birmoldatu

Edukinen trataera interdisziplinaria bultzatuz; inguruarekiko, gizakiok dugun menpekotasuna azalduz;

hurbileko errealitatearen eta urruneko inguruaren erlazioak agerian ipiniz eta ingurunearen aldeko ekintzak planteiatuz.

2. Partizipazioarako eta ekintza sozialerako hezkuntza garatu

Eskola gizartera zabaldu, instituzioekin, taldeekin eta mugimendu sozialekin batera lana egiteko inguruaren eta bizitza kalitatearen hobekuntzan.

3. Eskolaren bizitza kolektiboa birmoldatu

Espazioak birmoldatuz; kanpokoak zein barrukoak: ortu eskolarrak eginez, zugaitzak landatuz, gelak eta pasiloak apainduz, eskola bera, kalitatezko ingurugiro eredu izan dadin.

Baliabideen kontsumoa eta hondakinen ekoizpena murriztu

Harreman pertsonalak hobetuz; ideiak kontrajarrit, gatazken konponbideak topatzen saiatuz eta ulermen, onartze eta errespeto giroan heziz.

Irakaskuntza metodoak hobetuz; ekintzarako bideak eskeiniz, talde eraketa moldakorrak erabiliz eta komunitatearen bizitzan partizipazioa bultzatuz.

Amaiera

Proposatutako bideak garatzeko eta Ingurugiro Heziketa zentzu zabalean hedatzeko, ezinbestekoak ikusten ditugun beste ekinbideak aipatuko ditut amaitzeko:

- Instituzioen arteko koordinazio hobea
- Informazioaren zabalpen sakonagoa eta hobea
- Komunikabideen laguntza eta
- Baliabideen erabileraz erabakiak hartzen dituzten formakuntza: politikoen, enpresarien, ekonomisten eta kazetarien formakuntza

Ingurugiro gestioa denon erantzunkizuna delako eta Ingurugiro Heziketaren helburuak ahalbideratzeko gizarte osoaren konprometua gustuz beharrezkoa delako.

CONCLUSIONES

1. La educación ambiental ofrece una nueva visión del mundo y de la posición que en él ocupa el ser humano, implica un cambio de posicionamiento de las personas y de los grupos sociales respecto a su entorno. Por lo tanto, la educación ambiental está íntimamente relacionada con aspectos sociales, económicos, históricos, éticos, etc., que superan el ámbito escolar.

2. Para el correcto desarrollo de la educación ambiental, tanto dentro como fuera del sistema educativo, resulta necesaria la colaboración y coordinación de los diferentes sectores implicados: Administración, sistema educativo, movimiento asociativo, medios de comunicación, etc.

3. De cara a la correcta evolución de la realidad existente en materia de educación ambiental se hace imprescindible realizar un importante esfuerzo en todo lo relativo a la evaluación de los programas en curso, tanto por parte de los agentes que los llevan a cabo como de los que los patrocinan.

4. La opción realizada en los Diseños Curriculares supone un paso adelante respecto a la situación anterior. Sin embargo, ahora se nos plantea el reto de desarrollar de forma decidida la educación ambiental a partir de dicha opción.

5. El futuro de la educación ambiental en el sistema educativo vasco va a depender más de esta etapa de desarrollo que de la anterior en la que se realizó el diseño. En función del desarrollo que de estos documentos se haga y de las acciones que se emprendan para ello (en relación a formación del profesorado, realización de materiales curriculares, etc.) las líneas transversales se consolidarán como una de las grandes aportaciones del actual proceso de reforma en el que estamos inmersos o quedarán como referencias teóricas sin incidencia real en los centros educativos.